

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

5534

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 6koa, Justiziako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuta eta preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia ebazten duena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Lan eta Justiziako sailburuak, 2017ko maiatzaren 30ean emandako Aginduaren bidez (2017ko ekainaren 9ko EHAA, 109. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuta eta preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko 2017an burutuko diren proiektuetarako diru-laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak ezarri ziren.

Bigarrena.– Eskaerak aztertu ondoren, eta deialdi egiten duen Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Balorazio Batzordea 2017ko irailaren 5en bildu zen eta diru-laguntza emateko proposamena egin zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justiziako zuzendaria da ebazpen hau emateko eskuduna, horrela ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoan zigortu eta preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Lan eta Justiziako sailburuaren 2017ko maiatzaren 30eko Aginduak bere 13. artikuluan.

Bigarrena.– Aipatu deialdiaren aginduak 6. artikuluan adierazten duenez, Justizia Zuzendari-tzari dagokio, Helduentzako Justizia Zerbitzuaren bidez, aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea eta horiek eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.

Hirugarrena.– Deialdiaren aginduaren 11. artikulua xedatzen duenez, eskabideak honako balorazio-irizpide eta puntuazio-eskala hauen arabera baloratuko dira:

1.– Eskabideak balorazio-irizpide eta puntuazio-eskala hauen arabera baloratuko dira:

a) Eskatzaileari dagokionez:

Erakundearen ibilbidea presoak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko lanetan: 0tik-10 puntura.

a.1.– Giza eskubideen arloan, nazioarteko edo Europako aintzatespen ofiziala edo saria duen erakundea: 9-10 puntu.

a.2.– Giza eskubideen arloan, Espainiako edo autonomia bateko aintzatespen ofiziala edo saria duen erakundea: 8-9 puntu.

a.3.– Onura publikoko deklaraturik dagoen erakundea: 7 puntu.

a.4.– Presoen gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko lanetan 10 urte edo gehiago aritu den erakundea, urte kopuruaren arabera: 4-6 puntu.

a.5.– Presoen gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko lanetan 5 urte edo gehiago aritu den erakundea, urte kopuruaren arabera: 0-3 puntu.

b) Proiektuari dagokionez:

b.1.– Proiektuak presoak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko prozesuari egingo duen ekarpena: 0tik 15 puntura.

b.1.1.– Zigortuta eta preso daudenak espetxez kanpo bizitzeko aukera ematen duten proiektuak, horien intentsitatearen arabera: 7-15 puntu.

b.1.2.– Bestelako proiektuak, horien intentsitatearen arabera: 0-6 puntu.

b.2.– Proiektuaren egokitasuna edo gizarte-interesa: 0tik 15 puntura.

b.2.1.– Problematika espezifikoak duten kolektiboak (espetxearekiko ohitze-maila altukoak, ijitoak, etorkinei, emakumeei eta osasun mentaleko arazoak dituztenei) zuzendutako proiektuak, horietan parte hartzen duten pertsonen kopuru eta intentsitatearen arabera: 7-15 puntu.

b.2.2.– Bestelako proiektuak, horietan parte hartzen duten pertsonen kopuru eta intentsitatearen arabera: 0-6 puntu.

b.3.– Proposatzen diren jardueretan, erakundearen lankidetzarako eta baterako parte-hartzearen maila: 0tik 10 puntura.

b.3.1.– Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzuarekin eta Lanbiderekin egindakoak: 8-10 puntu.

b.3.2.– Presoak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko lanean ari diren beste erakunde eta organizazioekin egindakoak: 0-7 puntu.

b.4.– Proiektua hainbat urtetan gauzatzeko aukera: 0tik 5 puntura.

b.4.1.– Autofinanziaketa duten proiektuak, horien ehunekoen arabera: 3-5 puntu.

b.4.2.– Bideragarritasuna egiaztatuta duten proiektuak, urteen arabera. Gutxienez, proiektua azken bi urteetan egin behar izan da: 0-2 puntu.

b.5.– Boluntarioen parte hartzea: 0tik 5 puntura.

b.5.1.– Boluntarioak diru-laguntzarako aurkeztu den proiektuan, kopuruaren arabera: 3-5 puntu.

b.5.2.– Boluntarioak erakundearen beste proiektu batzuetan, kopuruaren arabera: 0-2 puntu.

2.– Balorazio-irizpide horiek aplikatuta, gehienez ere 60 puntu lortu ahal izango dira.

3.– Diru-laguntza emateko, aurreko irizpideen arabera 30 puntutik gora lortu beharko ditu eskabideak.

Laugarrena.– Bestalde, Aginduaren 12. artikulua, zenbatekoa zehaztekoari buruzkoak, bere lehenengoko artikuluan adierazten du Justizia Zuzendaritzak, Helduentzako Justizia Zerbitzuaren bidez, aukera izango duela, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu baino lehen, diruz laguntzekoak ez diren gastuen edo proiektuarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuen diru-kopuruak doitzeko.

Balorazio-irizpideen arabera 30 puntu baino gehiago lortu dituzten eskabideen proiektuei zenbateko diru-laguntza dagokien zehazteko, artikulua prozedura hau zehazten du:

– Eskabideak puntuaziorik altuenetik txikienera antolatuko dira. 60 puntu lortu dituen eskabideari (gehienez ere) portzentaje teoriko bat aplikatuko zaio, eskatutako kopuruaren % 100ekoa. Gainontzeko eskaerei balorazio irizpideetan lortutako puntuen arabera portzentaje proportzionala aplikatuko zaie, hurrenez hurren.

2017ko azaroaren 17a, ostirala

– Diru-laguntzen zenbateko teoriko guztiak batuta aurrekontuaren diru-hornidura gainditzen bada, diru-laguntzen zenbateko guztiak proportzionalki egokituko dira, diru-laguntza teoriko guztiei portzentaje berbera jaitziko zaielarik. Portzentaje hori honela kalkulatu da: diru-hornidura zati zenbateko teoriko osoa.

– Diru-laguntzen zenbateko teoriko guztiak batu eta aurrekontuen diru-hornidura gainditzen ez bada, berriz, soberakoa eskabide guztien artean banatu da proportzionalki, aurreko paragrafoan ezartzen den prozedura berari jarraituta. Horrela kalkulatu zenbatekoak ezingo du inondik inora gainditu diruz lagun daitekeen gastuaren % 100.

Edozein modutan, proiektu bakoitzari eman ahal zaion gehieneko diru-laguntza 50.000 eurokoa izango da.

Bosgarrena.– Diru-laguntzaren ordainketa eta erakunde onuradunek egin beharreko justifikazioa, diru-laguntza jasotzeko beharrezkoak diren betekizunak bete dituztela eta diru-laguntzaren xede den proiektua burutu dutela egiaztatzea, deialdiaren aginduak xedatutakoarekin bat etorriko dira. Diru-laguntzak emateko betekizunak betetzen ez badira, aginduaren 18. artikuluan xedatutakoa aplikatu da.

Horregatik guztiatik eta Balorazio Batzordeak egin duen ebazpen-proposamena ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde eta proiektuei han agertzen diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, erakunde interesdunei jakinarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuta eta preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egin duen Lan eta Justiziako sailburuaren 2017ko maiatzaren 30eko Aginduaren 13. artikuluan xedatzen denari jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta interesdunak gora jotzeko errekursoa jar dezake Lan eta Justizia Saileko Justiziako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, urriaren 1ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 6a.

Justizia zuzendaria,
DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2017ko azaroaren 17a, ostirala

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

IFK	Erakundea	Lurralde Historikoa	Proiektua	Zenbatekoa
G01027390	Asociación Gitana Gao Lacho Drom Gitana Gao Lacho Drom	Araba	Programa de Inclusión Sociolaboral para Internos en el C.P. Araba y otros de la CAPV	19.811 €
G48229405	Módulo de Asistencia Psico-Social de Deusto-San Ignacio	Bizkaia	Inclusión Social de Penados y Presos Drogodependientes Fuera de Régimen Penitenciario	6.297 €
G01042670	Comisión Ciudadana Antisida de Alava	Araba	Programa de Orientación y Formación Laboral e Intermediación Con Empresas	16.697 €
G20893830	IRESGI Instituto Vasco de Inserción Social y Victimología	Gipuzkoa	Huerto Ecológico y Terapeutico de Inclusión Socio Laboral para Personas Presas en el C.P. de Martutene	6.642 €
G20893830	IRESGI Instituto Vasco de Inserción Social y Victimología	Gipuzkoa	Salidas Programadas para Personas Presas en el C.P. de Martutene	3.904 €
G20662862	Asociación Arrats	Gipuzkoa	Ateak Programa de Acompañamiento Individualizado en Procesos de Reintegración Socio-Jurídica-Laboral	8.285 €
G48487748	Asociación para la Inserción Social Zabaltzen de Durango	Bizkaia	Centros de Orientación y Acompañamiento para el Empleo Zabaltzen	13.164 €
G95210084	Fundación Integrando	Bizkaia	Integra 2017. Acompañamiento a la Inserción Social y Laboral de Personas Presas	15.153 €
G48717045	Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria	Bizkaia	Piso Integración Hedatu	20.121 €
G48717045	Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria	Bizkaia	Servicio de Acogida en Permisos	7.398 €
G48717045	Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria	Bizkaia	Servicio de Apoyo para la Integración Sociolaboral	6.293 €
G81436099	Fundación Adsis	Bizkaia	Centro de Día Adsis-Bestalde 2017	15.304 €
G81436099	Fundación Adsis	Bizkaia	Salidas Programadas y Experiencias Solidarias (Campos de Trabajo) 2017	4.923 €
G48212468	Módulo de Asistencia Psico-Social Auzolan	Bizkaia	Medidas Alternativas para Personas Toxicómanas con Penas de Prisión	4.772 €
G20093415	Fundación Izan	Gipuzkoa	Proyecto de Financiación del Gasto por el alquiler y habilitación del centro de Inserción Social de Donostia	6.397 €
G20093415	Fundación Izan	Gipuzkoa	Proyecto Penitenciario y de Inclusión Social de Personas Drogodependientes	19.952 €
G01126127	Asociación de Reinserción Social Sartu Alava	Araba	Centro de Orientación y acompañamiento para el empleo de la Asociación Sartu-Alava	28.084 €

2017ko azaroaren 17a, ostirala

IFK	Erakundea	Lurralde Historikoa	Proiektua	Zenbatekoa
G20059135	Aranzadi Zientzia Elkartea	Gipuzkoa	Inserción Social para la Población Reclusa de Gipuzkoa	5.343 €
G48169882	Fundación Etorikintza	Bizkaia	Integración Social Activa para Medida Alternativa a Prisión	9.204 €
G48169882	Fundación Etorikintza	Bizkaia	Inclusión Sociolaboral para Personas Presas Drogodependientes	18.118 €
G95265286	Asociación Amikeco para el Tratamiento de la Violencia	Bizkaia	Programa de Tratamiento de la Violencia en condenas por Violencia de Género e Intrafamiliar	11.822 €
G48545610	Asociación Zubietxe de Reinserción de Personas Drogodependientes	Bizkaia	Inclusión Socio-Laboral para Personas Privadas de Libertad	9.097 €
G48473045	Fundación Gizakia	Bizkaia	Proyecto Extrapenitenciario de Inclusión Socio-Laboral de Personas Drogodependientes Presas	27.399 €
G20181319	Asociación para la Reinserción Social Erroak	Gipuzkoa	Centros de Orientación y Acompañamiento para el empleo de la Asociación Erroak-Sartu	17.553 €
G81436099	Fundación Adsis	Bizkaia	Programa Aurrelan (Antes Programa de Integración Socio-Laboral Pisl)	11.080 €
G48578017	Asociación Goiztiri Elkartea	Bizkaia	Recurso Residencial Goizargi dirigido a Mujeres Presas 2016	16.202 €
G48578017	Asociación Goiztiri Elkartea	Bizkaia	Programa de Formación y Capacitación de Personas Presas y Penadas Goiztiri 2017	5.708 €
G48578017	Asociación Goiztiri Elkartea	Bizkaia	Acompañamiento a la Inclusión Sociolaboral de Personas Presas y Penadas 2017	5.821 €
G95237491	Asociación Zubiko - Zubiko Trebakuntza eta Lan Sustapena Elkartea	Bizkaia	Acompañamiento para la Inclusión Socio-Laboral de Personas Penadas y Presas de la CAPV	30.139 €
G01237882	Asociación Salhaketa Araba	Araba	Piso de Larga Estancia	6.740 €
F48211080	Gaztaroa Sartu Koo. Elk.	Bizkaia	Centro de Orientación y Acompañamiento para el empleo Gaztaroa Sartu Koop.	19.693 €
G01174846	Asociación para la Defensa de los Presos Gizabidea	Araba	Campos de Trabajo Solidarios	2.014 €
G01174846	Asociación para la Defensa de los Presos Gizabidea	Araba	Salidas y Caminos de Santiago	2.877 €
G48852578	Asociación Claretiana para el desarrollo Humano Sortarazi	Bizkaia	Programa de Incorporación Sociolaboral para Personas Penadas y Presas	10.788 €
G01037431	Federación de Euskadi Asociación de Familiares y Enfermos Psíquicos	Araba	Ateak Zabaldu, Atención Integral a las Personas con Enfermedad Mental afectadas por el Régimen Penal	23.075 €
G20070165	AGIPAD	Gipuzkoa	Programa Penitenciario y Judicial de Agipad	12.348 €

2017ko azaroaren 17a, ostirala

IFK	Erakundea	Lurralde Historikoa	Proiektua	Zenbatekoa
F95561650	Erain Elkarteko Osasun Mentala S. Coop.	Bizkaia	Programa de Atención Psicosocial y Comunitaria a Personas Privadas de Libertad	10.865 €
F95561650	Erain Elkarteko Osasun Mental S. Coop.	Bizkaia	Atención Psicosocial y Comunitaria a Personas Jovenes Privadas de Libertad	10.865 €
F48481923	Agintzari Sociedad Cooperativa de Iniciativa Social	Bizkaia	Servicio de Atención Psicológica a Agresores Sexuales y Penados por Delitos contra las Personas	7.192 €
F95561650	Erain Elkarteko Osasun Mental S. Coop.	Bizkaia	Xangar: Programa de Inserción y Capacitación para Personas Penadas	6.781 €
G95005047	Asociación Susterra para la Promoción Humana y el Desarrollo	Bizkaia	XANGAR 2017	16.079 €
Guztira				500.000€